

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen oinarriak eta deialdia, Vitoria-Gasteizko erdi aroko hiriguneko eta erdiguneko eratzuneko isolamendu akustikoa hobetzeko obretarako, 2025. urtea

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko uztailaren 4an egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko erdi aroko hiriguneko eta erdiguneko eratzuneko isolamendu akustikoa hobetzeko obretarako dirulaguntzetarako 2025eko deialdi publikoa eta deialdiaren oinarriak onetsi zituen.

Oinarriak argitara ematen dira, denek izan dezaten horren berri, hala xedatzen baitute dirulaguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, lege horren araudia onartzen duen 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak eta dirulaguntzen udal-ordenantzak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 30ean

*Hiri Ereduren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta
Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administrazioaren burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ*

OINARRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan jasota dago zarataren inguruko araudia, bai autonomia-erkidegoaren mailakoa, bai lokala. Testuinguru horretan, Vitoria-Gasteizko Udalak, udalerriko zarataren kudeaketan eskumena duen organoa den aldetik, Zarataren Mapa Estrategikoa (ZME) egiten du aldiro; 2022an eguneratu zen orain hurrengo. Lehenago, ZME 2017 delakoa egin zen, eta, ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Plana (2019-2023) onetsi zuen, ZEMaren zarata-indizeak hobetze aldera. Zarataren arloko legediak galdegiten du Babes Akustiko Bereziko Eremuak (BABE) izendatzea Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH) gaintzen direnean. Orobat xedatzen da 213/2012 Dekretu horretan ezen, babes akustiko bereziko eremuen deklarazioa tramitatzeko, beharrezkoa dela eremuko plana egitea, zarata-mailak leuntzera zuzendua, hartara, modu progresiboan, kalitate akustikoaren helburuak bete daitezten. Babes akustiko bereziko 8 eremu (BABE) definitu dira Vitoria-Gasteizen, eta haiek deklaratzeko eta haien eremu-planak egiteko egin beharra Vitoria-Gasteizko Soinu Giroa Hobetzeko 2019-2023 Ekintza Planean datoz jasota, nagusiki aipatzen dituelarik, lehenik, BABEetan aplikatzekoak diren kalitate akustikoko helburuak betetzeko beharrezkoak diren hobekuntza-ekintzak, eta, ondoren, biztanleria osoak bizitegi-zona lasaiaren helburuak eskuratu ahal izateko bidean jartzea.

BABEak definitu ondoren, erdi aroko hiriguneko 1. BABEari eta Vitoria-Gasteizko erdiguneko eratzuneko 2. BABEari dagozkien eremu-planak egin ziren, eta 2023-04-12an onartu ziren behin betiko. Dokumentu horretan, aisialdiak eragiten duen zarataren problematika dela eta, kanpoko

kalitate akustikoaren helburuak betetzen saiatzea xede duten ekintzak finkatu dira. Nolanahi ere, eremu-plan hori landu bitartean, erdi aroko hiriguneko zenbait lekutan antzeman da gaueko zarata-indizea (Ln) nabarmenki gainditzen dela, eta epe luzeko ekintzak beharko dira halakoetan, kalitate akustikoaren helburuak lortzekotan. Izan ere, Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Planeko 5. ekintza-ildoan —Ostalaritzarekin eta gaueko aisialdiarekin lotutako eragozpenak murriztea—, zeinen helburua baita gaueko aisialdiaren ondorioz kalitate akustikoaren helburuak gainditzen dituzten mailak jasan behar izaten dituen populazioa apurka gutxitzea eta jarduera hori biltzen den zonetako biztanleei sortzen zaizkien eragozpenak murriztea—, xeheki ageri da zeinen zaila den epe motz edo ertainean kanpoko espazioan kalitate akustikoaren helburu horiek lortzea.

Hori dela eta, Vitoria-Gasteizko Erdi Aroko Hiriguneko Babes Akustiko Bereziko 1. Eremuko planean eta Erdiguneko Eratzuneko Babes Akustiko Bereziko 2. Eremuko planean, kanpoko ingurune-zarata murrizteko ekintzak ez ezik, jasotzen dira, halaber, zonako zaratak gehien eragiten dien inguruetakoa etxebizitzaren barruko kalitate akustikoaren helburuak lortzera bideratutako ekintza osagarriak.

Horregatik, Vitoria-Gasteizko Udalak, ikusirik hiriko zona zehatz horretako aisialdiaren zaratarekin zerikusia duen problematika, erabaki du Babes Akustiko Bereziko 1. Eremuko eta 2. Eremuko planetako ekintza horietako bati ekitea, alegia, Isolamendu Akustikoaren Planari.

Plan horren bitartez finkatu da zein etxebizitzatan hobetu beharko litzatekeen kanpoko fatxadetako baoen isolamendu akustikoa; izan ere, etxebizitza jakin bat plan horren xede izan dadin, fatxadan —aisialdiaren eraginez— zarata-maila jakin bat jasateko betebeharra bete beharko du, 2017an eta 2022an (bigarren urte horretan Gaueko aisialdiaren zarataren mapan egindako eguneratzearekin) lortu ziren datuak abiapuntutzat hartzen direlarik.

Hartara, oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren betebeharrak betetzen baditu etxebizitzak, isolamendu akustikoaren obren kostuaren ehuneko 70eko dirulaguntza emango da, adierazten diren gehieneko zenbatekoetara arte.

Konkurrentzia sinplearen prozeduraren bitartez tramitatuko dira dirulaguntzak. Hau da, aurkezten diren hurrenkeran ebatziko dira behar den moduan aurkezten diren eskabideak, eta, betekizunak betetzen dituztela egiaztaturik, dirulaguntzak emango, harik eta deialdiaren aurrekontu-kreditua agortu arte.

Isolamendu akustikoaren obrak egin eta justifikazioko kontua aurkezten duenak ordainduko zaio onuradun bakoitzari laguntza esleituaren zenbatekoa.

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko Udalak dirulaguntzak ematea, erdi aroko hirigunean eta Vitoria-Gasteizko gaueko aisialdiaren eragina jasaten duten beste eremu batzuetan — Erdi Aroko Hiriguneko 1. BABEan eta Erdiguneko Eratzuneko 2. BABEan sartutakoak (Vitoria-Gasteizko Soinu Giroa Hobetzeko Ekintza Plana-SGHEP 2019-2023 delakoan definitu ziren Babes Akustiko Bereziko Eremu-BABE horiek)— dauden etxebizitzetako kanpoko fatxadetako baoen isolamendu akustikoa hobetzeko obrak finantzatzeko. Zehazki, I. eranskinean jasotzen diren etxebizitza-erakinetan, baldin eta gaueko zarata-indizearen balioak (Ln) 10 dB (A) baino gehiago gainditzen baditu eraginpean dagoen fatxadan, 2017ko gaueko aisialdiko zarataren mapa egitean lortutako datuen arabera, eta halaber etxebizitzaren kopurua handitu bada 2022ko gaueko aisialdiaren maparekin datuak eguneratzearen ondorioz.

2. Aurrekontu-zuzkidura

2.1. 2025eko udal aurrekontuetako 2025/022204,1711 1711 78004 partidaren kontura ordainduko dira deialdi honen bitartez ematen diren laguntzak, eta guztira 50.000,00 euro da partida horren zuzkidura.

3. Onuradunen betekizunak

3.1. I. eranskinean adierazten diren eraikinetako etxebizitzaren baten jabe, gozamendun edo errentari diren edo haren gaineko beste edozein gozamen-agiri duten pertsona fisiko edo juridikoak izan ahalko dira dirulaguntza horien onuradun, dirulaguntzaren xede den isolamendu akustikoaren hobekuntza gauzatzen dutelarik.

3.2. Gainera, deialdian parte hartzekotan, eskatzaileek beteta eduki beharko dituzte Gizarte Segurantzarekiko, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Vitoria-Gasteizko Udalarekiko betebeharrak fiskalak. Eskakizun hori dirulaguntza ematen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean eta dirulaguntza ordaintzen denean eduki beharko da beteta.

4. Diruz lagundu daitezkeen egintzak

4.1. Bide publikora jotzen duten kanpoko fatxadetako baoen isolamendu akustikoa hobetzeko obrak egitea izango da diruz lagun daitezkeen ekintza, hots, kanpoko arotzeria-lana — leihoak nahiz balkoi-ateak— ordezteak, I. eranskinean eraikinetako bakoitzeko ezartzen den gutxieneko isolamendua betetzen delarik.

Era berean, erdi aroko hiriguneko birgaitze integraturako plan berezian ezarritako baldintzak bete beharko ditu obrak, baita Vitoria-Gasteizko hirigune historikoa ondare kultural izendatu — multzo monumentala kategoriarekin— eta haren Babes Erregimena onetsi zeneko Dekretuaren laugarren aldakuntzaren azaroaren 18ko 281/2003 Dekretua ere.

4.2. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira aurreko puntuan adierazitako obrak, baldin eta 2023ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 1era arte egin badira.

4.3. Ez da dirulaguntzarik emango etxebizitzetakoak ez diren leiho eta balkoi-ateak ordezteagatik, hala nola eraikinetako zona komunetakoak edo lokaletakoak.

4.4. Begiratokien kasuan, barruko ate edo leihoa ordezteagatik eman ahal izango da dirulaguntza.

5. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

5.1. Aurreko oinarrian azaldu diren isolamendu akustikoa hobetzeko obren kostua izango da diruz lagun daitezkeen gastua. Zehazki, leiho edo balkoi-atearen kostua, barnean harturik markoa, beirak jartzea eta persiana-kutxa, baita horiek instalatzeak eta, behar izanez gero, leiho edo ate zaharrak kentzeak eska litzakeen igeltserotza-lanak ere.

5.2. Ez dira dirulaguntzaren xede izango finantzaketa-gastuak, ezta zerga eta tasei dagozkienak ere.

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Laguntza ekonomikoa diruz lagun daitezkeen gastuaren ehuneko 70 izango da, BEZa aparte, eta gehieneko zenbateko bat izango du muga, ordeztzen den leiho edo balkoi-ate bakoitzeko, honen arabera:

A. 40 dB(A)-ko edo hortik gorako isolamendua.

— Leiho txikia (1,7 m² arteko azalera duena): 1.100,00 euro.

— Leiho handia edo balkoi-atea (1,7 m²-tik gorako azalera): 1.800,00 euro.

B. 40 dB(A)-tik beherako isolamendua.

— Leiho txikia (1,7 m² arteko azalera): 900,00 euro.

— Leiho handia edo balkoi-atea (1,7 m²-tik gorako azalera): 1.500,00 euro.

7. Dirulaguntzak emateko prozedura

7.1. Dirulaguntza hauen izaera eta helburua kontuan hartuta, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 19.1 B) artikuluan xedatutakoaren arabera, konkurrentzia sinple bidez emango dira dirulaguntzak, eta, hala, deialdian ezarritako betekizunak beterik deialdi honetan eskatzen diren dokumentu guztiak aurkezten dituztenei emango zaie dirulaguntza, aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren mugaraino, eta hargatik eragotzi gabe dirulaguntza handiagoa eman ahal izatea 2. oinarrian ezarritakoaren arabera.

7.2. Eskabidea aurkezten den eguna eta ordua hartuko dira aintzat laguntzak emateari buruz ebazteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Akatsen bat zuzendu behar izanez gero, akatsak zuzendu edo dokumentazio osagarria aurkezten den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatzat.

8. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

8.1. Laguntza hauek bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakunde emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

8.2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gainditu, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntzarekin, diru-sarrerarekin edo baliabiderekina batera. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da dirulaguntzaren zenbatekoa, indarrean dagoen legedian ezarritako moduan.

8.3. Nolanahi ere, laguntzak ez dira bateragarri izango helburu berarekin Vitoria-Gasteizko Udaleko sailek edo udal erakunde edo enpresek ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

9. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

9.1. Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2025eko abenduaren 1ean amaituko.

9.2. Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

9.3. Etxebizitza bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu beharko da, II. eranskineko eredu baliatuz —eskuragarri dago udalaren webgunean—.

Formularioak honako hauek ditu:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honetan ezarritako irizpideak ezagutu, onartu eta betetzeari buruzkoa.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzkoa.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako debekuetako batean ere ez egoteari buruzkoa, hartara onuradun izan ahal izateko.

d) Vitoria-Gasteizko Udalari baimena ematea, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatzeko.

9.4. Dokumentazio hau erantsi beharko zaio eskabideari:

a) Ordezkeri bidez jardunez gero, ordezkatzeko ahalmena egiaztatzen duen agiria.

b) Vitoria-Gasteizko Udalari zerga-betebeharrak egunean edukitzearen inguruko ziurtagiriak ofizioz eskatzeko baimena ukatuz gero, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

c) Eskatzailea jabea edo gozameduna bada, etxebizitzaren jabetza-eskritturaren kopia edo etxebizitzaren ohar soila, Jabetza Erregistroak jaulkia.

d) Eskatzailea errentaria bada, edo beste edozein gozamen-agiri badu, indarrean dagoen kontratuaren kopia eta obra egiteko baimena, jabeak emana.

e) Isolamendu akustikoa hobetzeko obren kostuaren aurrekontu xehatua, ordeztu nahi diren leiho edota balkoi-ateen arabera banakatua, bete beharreko eskakizun akustikoekin —I. eranskinean ageri dena adinakoa edo hortik gorakoak izan beharko dute—.

f) Kanpoko fatxadaren argazkia —ordeztuko diren leiho edota balkoi-ateena—.

9.5. Egokitzen jotzen dituen argibideak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie Vitoria-Gasteizko Udalak eskatzaileei, eskabidea behar bezala baloratu ahal izateko.

10. Eskabideko akatsak zuzentzea

Eskabidea jasotzen delarik, baldin eta behar bezala osaturik ez badago edo dokumentaziorik falta bada, organo instrukzio-egileak galdatuko dio eskatzaileari akatsak konpondu edo falta diren nahitaezko agiriak aurkez ditzala hamar (10) egun balioduneko epean —jakinarazten zaion egunaren biharamunetik—, eta ohartaraziko ezen, hala egin ezean, eskabidea bertan behera utzitzat joko dela, ebazpena tarteko, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legearen 68. artikulua ildotik.

11. Instrukzioa

11.1. Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administratiboko udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea.

11.2. Organo instrukzio-egileari dagokio eskabideak aztertzea, eta ofizioz egingo ditu galdatzen diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

12. Ebazpena

12.1. Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkaria da dirulaguntzak ebazteko/emateko organo eskuduna, Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntzen arloko eskumenak eskuordetzeko 2025eko maiatzaren 16ko bilkuran hartutako erabakiaren arabera.

12.2. Ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaroz gero, dirulaguntza-eskabidea ezetsitzat joko da.

12.3. Dirulaguntza eman edo ukatzen deneko ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, eta beraren kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da erabakia hartzen duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo presuntziorik ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Era berean, zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

12.4. Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak 24.6 artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taulan argitaratuko dira, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak emandako irizpideak kontuan hartuz; horretaz gain, ebazpen horiek eta izapide-egintzak pertsonalki jakinaraziko zaizkie dagozkienei.

13. Uko egitea

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eskabide normalizatua baliatuz egin ahal izango dio uko onuradunak dirulaguntzari, eta Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko zinegotzi ordezkariak onartzen duenean izango ditu ondorioak.

14. Obrak egitea

14.1. Deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak eskuratzekotan, obra txikirako udal lizentzia edo dena delako gaitze-agiria eduki beharko du diruz lagun daitekeen jarduketak.

14.2. Onuradunak kontratatu eta kudeatuko ditu obrak, berak aukeratzen duen enpresa instalatzailearekin.

15. Ebazpena aldatzea

Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztera behartuta egongo da onuraduna.

16. Dirulaguntza justifikatzea

16.1. 2025ko abenduaren 31n bukatuko da justifikatzeko agiriak aurkezteko epea.

16.2. Entitate onuradunak justifikatu egin beharko du dirulaguntza, eta, horretarako, egingdako gastuaren justifikazio-kontu arrunta aurkeztu beharko du, dokumentu hauek jasotzen dituela, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluaen arabera:

a) Proiektuaren azalpen-memoria. Eta horrekin batera:

– Leiho edo balkoi-ateen CE ziurtagiria, non egiaztatzen den haien isolamendu akustikoaren indizea I. eranskinean adierazitakoa adinakoa edo hortik gorakoa dela.

– Jardunbide egokien konpromisoa, enpresa instalatzaileak sinatua, zeinen bitartez bermatzen den instalatutako leiho edo balkoi-ateek, oro har, galdatzen diren betekizun akustikoak betetzen dituztela. III. eranskina.

b) Jardueren kostua justifikatzen duen justifikazio-memoria ekonomikoa, kontu arruntaren ereduaren arabera, zeinak honako atal hauek izango baititu:

1: Funts propioen edo beste entitate batzuetatik jasotako justifikazioa.

Jarduera entitate publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzen badute edo/eta pertsona onuradunaren funts propioekin finantzatzen bada bete beharko da atal hori.

2: Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.

Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa zehaztuz. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

3: Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.

Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruz:

— Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Vitoria-Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.

— Onuradunak proiektua gauzatzeko soldatapeko langilerik ez duela jasotzen duen adierazpena.

— Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion zeharkako kostuen adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian edo hitzarmenean adierazten den ehunekotik gorakoa.

— Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non zehazten diren diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak —zenbatekoak eta jatorriak—, edo, non, hala izanez gero, adierazten den ez dela eskatu ez eskuratu bestelako laguntzarik.

16.3. Diruz lagun daitekeen gastu edo inbertsioaren zenbateko osoa justifikatu beharko da; ez dirulaguntzaren zenbatekoa.

16.4. Diruz lagundutako obra benetan egin dela egiaztatzeko neurriak hartu ahal izango ditu Vitoria-Gasteizko Udalak.

17. Dirulaguntza ordaintzea

17.1. Ordainketa bakarrean ordainduko da dirulaguntza, 16. oinarrian adierazitako justifikazioko kontua aurkeztu ondoren.

17.2. Dirulaguntza ordain dakion, obra txikirako lizentzia edo dena delako gaitze-agiria eduki beharko du onuradunak. Deialdia egin duen sailak ofizioz egiaztatuko du betekizun hori.

17.3. Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean adierazitako kontu korrontean.

17.4. Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta onuradunak artean ere Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, eta ezta ere dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik artean ere zordun denean.

18. Dirua itzultzea

18.1. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan edo Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 40. artikuluan aurreikusten diren kausetakoren bat egokituz gero, jasotako diru-kopuruak itzuli egin beharko dira, dagozkien interesekin.

18.2. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, lortutako soberakina itzuli egin beharko da, eta dago-kion berandutze-interesa ere eskatuko da, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

19. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 12. artikuluan jasotako betebeharrak izango dituzte dirulaguntzen onuradunek.

20. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Deialdi hau Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027) dago jasota, zeina indarrean baitago, 2025eko urtarrilaren 21ean onetsirik Tokiko Gobernu Batzararak.

Deialdiaren xedea da etxebizitzaren barruan kalitate akustikoko helburuen (KAH) baloreak hobetzea gauetan —kalean kalitate akustikoko helburu horiek nabarmen gaingaitzen direla antzematen baita gauetan—, bizitegi-eraikinetako fatxadetako baoak isolatuta, hartarako.

21. Interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak

21.1. Oinarri hauek eta deialdia interpretatzean sortzen diren zalantzak Tokiko Gobernu Batzarrek ebaziko ditu.

21.2. Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, honako hauek aplikatuko dira:

– Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra, zeinaren behin betiko onespena 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu baitzen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri indarrean. Lehen artikuluan ezartzen denez, "Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinari arautzaile orokorrak ezartzea"

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bitartez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onetsi baitzen.

– Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

– Bat datozen eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak.

I. ERANSKINA

ONURADUN IZAN LITEZKEEN ETXEBIZITZEN ETA GALDATZEN DEN
GUTXIENKO ISOLAMENDU-INDIZEAREN ZERRENDA

2017ko Gaueko Aisiaren Maparen arabera

Kalea	Zk.	Gutxieneko isolamendu- indizea ($D_{2m,T1A_1}$, dB(A)etan)
San Frantzisko Xabierkoaren kantoia	6	43
San Roke kantoia	2	41
Aiztogile kalea	1	40
Aiztogile kalea	2	41
Aiztogile kalea	3	40
Aiztogile kalea	4	40
Aiztogile kalea	6	41
Aiztogile kalea	8	41
Aiztogile kalea	10	41
Aiztogile kalea	14	39
Aiztogile kalea	27	39
Aiztogile kalea	29	42
Aiztogile kalea	31	43
Aiztogile kalea	32	44
Aiztogile kalea	33	39
Aiztogile kalea	34	45
Aiztogile kalea	36	45
Aiztogile kalea	38	40
Aiztogile kalea	40	42
San Bizente aldapa	1	41
Foru kalea *	1	39
Pintore kalea	40	39
Pintore kalea	42	39
Pintore kalea	44	39
Pintore kalea	46	39
Pintore kalea	48	39
Errege atea	1	43
Errege atea	3	46
Errege atea	6	39
Errege atea	8	42
Errege atea	9	46
Errege atea	11	46
Zapatari kalea	13	40
Zapatari kalea	14	42
Zapatari kalea	15	45

Zapatari kalea	16	45
Zapatari kalea	17	46
Zapatari kalea	18	46
Zapatari kalea	19	46
Zapatari kalea	20	41
Zapatari kalea	21	46
Zapatari kalea	22	39
Zapatari kalea	24	42
Zapatari kalea	25	42
Zapatari kalea	26	43
Zapatari kalea	27	40
Zapatari kalea	28	41
Zapatari kalea	29	40
Zapatari kalea	34	39
Zapatari kalea	45	43
Zapatari kalea	49	39

* Errege ateko kanpoko fatxadako leihoei bakarrik aplika dakieke dirulaguntza.

ONURADUN IZAN LITEZKEEN ETXEBIZITZEN ETA GALDATZEN DEN GUTXIENKO ISOLAMENDU-INDIZEAREN ZERRENDA HANDITZEA

Gaueko Aisiaren Mapako 2022ko datuen arabera

Kalea	Zk.	Gutxieneko isolamendu-indizea ($D_{2m;nT;A_1}$ dB(A)etan)
Aiztogile kalea	5	42
Aiztogile kalea	7	40
Aiztogile kalea	9	39
Aiztogile kalea	16	42
Aiztogile kalea	18	41
Aiztogile kalea	20	39
Aiztogile kalea	25	39
Aiztogile kalea	30	39
San Bizente aldapa	2	40
Dato	10	40
Florida	39	44
Florida	41	41
Florida	50	40
Florida	54	40
Florida parkea	3	39
Florida parkea	5	41



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SAAC_001

II. Eranskina: Isolamendu akustikoa hobetzeko dirulaguntza eskabidea

Anexo II: Solicitud de subvención para obras de mejora de aislamiento acústico

informacion@vitoria-gasteiz.org

ESKATZAILEAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Izen-deiturak / Enpresaren izena – Nombre y apellidos / Razón social IFZ/IFK – NIF/CIF

ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

Izena – Nombre

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF
Izena / Enpresaren izena Nombre / Razón social		

Helbidea – Dirección

Kalea Calle	Zenbakia Número	Letra Letra	Eskailera Escalera
Solairua Piso	Atea Mano	Posta-kodea Cód. Postal	Herria Población
Udalerría Municipio	Lurraldea Provincia		
1. Telefon. Teléfono 1	2. Telefon. Teléfono 2	Posta elektronikoa Correo Electrónico	

ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Finantza-erakundea – Entidad Financiera IBAN F.E.Kodea
Código E.F. Bulegoa
Sucursal KZ - DC Kontu-zenbakia - Número de Cuenta

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

- Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.
- Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.
- Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.
- Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO – AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

- (1) "X" batez adierazi dagokiona - Marque con una "X" lo que proceda
- Konkurrentzialtik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.
- Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.

Dirulaguntzen Udal Ordenantzen 12. e) artikuluekin bat etorri, **Udalak ofizioz kontsultatuko ditu eskatzaileen nortasun-datuak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.**

De conformidad con el artículo 12. e) de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, el Ayuntamiento consultará de oficio los datos de identidad de las personas solicitantes a través de la Dirección General de la Policía.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 d) artikuluen, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikuluen eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluen arabera, **Udalak ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko zerga-be-tebarrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.**

De conformidad con el artículo 92.1 d) de la Norma Foral General Tributaria de Álava, artículo 23.3 de la Ley General de Subvenciones y artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, el Ayuntamiento recabará de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluen arabera, eskatzailea **ez dago Udalak Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren nortasun-datuak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak kontsultatzearen aurka.**

De conformidad con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, la persona solicitante no muestra oposición a que el Ayuntamiento consulte los datos de identidad de la Dirección General de la Policía, así como, los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 23/05/2025



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SAAC_001

II. Eranskina: Isolamendu akustikoa hobetzeko dirulaguntza eskabidea
Anexo II: Solicitud de subvención para obras de mejora de aislamiento acústico

informacion@vitoria-gasteiz.org

Aurkakotasuna adieraztekotan, adieraz ezazu zergatik - *De mostrar oposición, indique el motivo:*

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de
izenpea - Firma

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 23/05/2025



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SAAC_001

II. Eranskina: Isolamendu akustikoa hobetzeko dirulaguntza eskabidea
Anexo II: Solicitud de subvención para obras de mejora de aislamiento acústico

informacion@vitoria-gasteiz.org

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 23/05/2025



www.vitoria-gasteiz.org

CERT_002

III. Eranskina: Egindako lanak gauzatzean baliatutako jardunbide egokien ziurtagiria

Anexo III: Certificado de buenas prácticas en la ejecución de los trabajos realizados

ZIURTAGIRIA EMATEN DUEN PERTSONA – PERSONA QUE CERTIFICA

Izena – Nombre

Kargua – Con cargo de

Enpresa – En la empresa

Obra hauek egiteari dagokionez: – En cuanto a la realización de las obras en:

ZIURTATZEN DU: - CERTIFICA:

- Jasotako produktuak aurrekontuan zehaztutakoekin bat dato- zela egiaztatu dela, eta galdatzen den dokumentazioa eskura dutela.

➤ *Que se ha comprobado que los productos recibidos corresponden con los especificados en el presupuesto y que disponen de la documentación exigida.*
- Aplikazekoa den legedia eta eraikuntzako jardunbide egokien arauk aintzat harturik gauzatu direla obrak, arreta berezia jarri- riz baoak —ate eta leihoak— eratzen dituzten arotzeria-itxitu- ren eta persiana-kutxen finkapenak halako moduan egin zite- zen non bermatuta geratzen baita airearen iragazkortasuna- rekiko estankotasuna.

➤ *Que la ejecución de las obras se ha realizado con sujeción a la legislación aplicable y a las normas de la buena práctica constructiva, teniendo especial importancia que las fijaciones de los cercos de las carpinterías que forman los huecos (puertas y ventanas), así como que la fijación de las cajas de persiana, se han realizado de tal manera que queda garantizada la estanqueidad a la permeabilidad del aire.*
- Instalaturako leiho ororen isolamendu akustikoaren arloko be- tekizunak bete direla.

➤ *Que se ha dado cumplimiento de las exigencias de aislamiento acústico para cada ventana instalada.*

Eta hala jasota gera dadin, ziurtagiri hau eman du.

Y para que conste, se expide el presente certificado.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de
Izenpea – Firma